



Nahia Tolosa eta Maider Aldalur jai batzordeko kideak. OLATZ BALDA

Karramarroek kaia hartuko dute sei egunez

Arrantzale jantziak armairutik ateratzear daude Parte Zaharrean. Kaiko Karmengo jaiak sei eguneko egitarau zabala izango dute aurten eta, haurrentzako eguna berreskuratzeaz gain, bertso poteoa eta DJ txitak izango dituzte aurrenekoz, besteak beste.

Olatz Balda Sagarzazu

Kaian, arratsetako sardina erre usainak iragartzen ditu jaiak. Ke horrek adierazten du gertu daudela herri bazkariak, kukañak, txarangen doinuak, danborraden arradak eta gaueko ordu txikietara arte luzatzen diren kontzertuak. Aurten, sei egunez elkartzeko parada izango dute Parte Zaharreko bizilagunek, uztailaren 11tik 16ra bitarte ospatuko baitituzte Karmengo jaiak.

Ohi moduan, La Jodedera taldearen erritmo dantzagarriekin lehertuko da festa kaian. Aurten, Alde Zaharreko Kirol Elkartek botako du txupinazoa, «auzoan egiten duen lan guztia omentzeko», azaldu du Nahia Tolosa auzo elkartearen kideak (Parte Zaharra, 1997). Horren ondotik etorriko dira lehen kontzertuak, Neallta Fola eta Unidad Alavesaren eskutik, eta hantik aurrera festak ez du etenik izango hiriko txoko horretan. Oholtzatik igaroko dira, halaber, Eire, Gozategi, Indabe, Andoni Oilokiegi eta Iratzar erromeria, besteak beste.

DJ txitak, haur zein koxkortuentzat

Hilaren 12an izango dute Alde Zaharreko Gazte Asanbladak (AZGA) prestatutako Gazte Eguna: «Egun hori jendetsuenetako bat izan ohi da, beste auzoetako gazte dezente gerturatzen direlako», azaldu du Tolosak. Larunbat eta igandean, berriz, euskal kultura ardatz duten jarduerak nagusituko dira, eta astelehenean Haurren Eguna berreskuratuko dute: «Azken urteotan ez dugu umeentzako egun bat izan,



ILAZKI
EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua

HABE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gora
Karmengo jaiak!

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

bereziki, eta aurtengo egitarau luzeak hori egiteko aukera eman digu», azaldu du Maider Aldalur jai batzordeko kideak (Parte Zaharra, 2003). Hala, ohiko jolas eta jardueraz gain, *Holi Festa* eta haurrentzako txita izango dute, DJ eta guzti.

Haurren Egunari, DJ gauak emango dio segida, eta beraz, helduek ere izango dute euren ibilbidea txitaren atzetik: «Astelehena denez, ezin genituen hiru DJ jarri gauean eta txita erabiltzea erabaki zen, bereziki, ikusita Piratetan egin zela eta ondo atera zela», azaldu du Tolosak. Asteartean, berriz, Aitona-amonen Eguna ospatuko dute Karmengo Egunarekin batera. Aurten, baina, Matia Fundazioa joan beharrean, aitona-amonak kaira ekarriko dituztela iragarri du Tolosak; «eguraldiak ahalbidetzen badu», betiere.

Giro herrikoia mantentzen

Hiriko postalaren erdi-erdian badaude ere, betiko giro herrikoia bermatzen jarraitu nahi dute jai batzordean: «Gazteagoak gineneko karmenak txikiago oroitzen ditut, eta azken urteotan kanpoko jende gehiago ibiltzen da». Gauzak horrela, euskal kultura ardatz, bertakoentzako bereziki bideratutako eskaintza bermatu nahi izan dute: «Gogotsu eta indartsu gaude sei egunetako eskaintzara begira». Karramarroak prest daude, eta prest dituzte, halaber, osagarri guztiak. Orain, atzera kontaketa egitea baino ez zaie gelditzen. ●



OSTEGUNA 11

18:00

Haur danborrada.

19:30

Buruhandi eta erraldoiak.

20:00

Txupinazoa. La Jodedera. Sardina jana.

22:00

Neallta Fola eta Unidad Alavesa.

23:45

Gazte txupinazoa.

OSTIRALA 12

11:00

Desapiyua.

12:30

Pintxo lehiaketa.

14:00

Bazkaria eta bingo musikatua.

17:00

Bazpare elektrotzaranga eta korkonada.


19:30

Pasai txaranga. Txokolate jana. Sardina jana.



**ARROPA ETA DEKORAZIO
NAUTIKOA**

Ondo pasa
kaiko Karmengo
jaietan!



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA | Tel./Faxe: 943-42 47 97 | enbatadenda@gmail.com | www.enbata.eus



22:00
Zezensuzkoa.

22:30
Eire, Gozategi eta Indabe.

LARUNBATA 13

10:00
Artisau azoka.

12:00
Joaldunak. Kantujira.

13:00
Buruhandi eta erraldoiak.

14:30
Bazkari herrikoa. Bazkariaren jarraian mus txapelketa.

18:00
Helduen danborrada.

19:00
Txokolate jana.

19:30
Sardina jana.

22:00
Zezensuzkoa.

22:30
Bengo eta Iratzar erromeria.

IGANDEA 14

08:00
Diana.

11:00
Kukaña.

12:00
Gazta dastaketa.

12:15
Txistulariak.

12:30
Inaxio Perurenaren erakustaldia.

13:00
Tortilla txapelketa.

17:00
Haur mojito txapelketa.

18:00
Helduen mojito txapelketa.

19:00
Joselontxos txaranga.

22:00
Zezensuzkoa.

22:30
Andoni Oilokiegi.

ASTELEHENA 15

10:30
Puzgarriak.

11:00
Eskulan tailerrak.

11:30
Jolas herrikoiak.

12:00
Haurren kukaña.

13:00
Buruhandi eta erraldoiak.

16:00
Pilota txapelketa finalak.



MARE CLAUSUM

NORENA DA ITSASOA?
2024/07/05 — 2025/11/02



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA




MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



Euzko Legebiltzaria
Euzko Legebiltzaria
Euzko Legebiltzaria



ETORKIZUNA
ORAIN



Argazkia: San Telmo Museoa

17:30

Haurren jaitsiera txiki-txitarekin

Aquariumeko arranpalatik. Holi Festa.

18:30

Txokolate jana.

19:00

Mikeltxi DJ-a eta Miniño DJ-a txitan.

19:30

Sardina jana.

22:00

Natural Killer eta Elhijodelamarily DJ-ak.

ASTEARTEA 16**10:00**

Artisau azoka. Aita Mariri lore eskaintza.

11:00

Aitona-amonei bisita.

12:00Bertso poteoa: Andoitz Urdapileta,
Jon Altuna eta Peru Aiarza.**12:00**

Muxikoak.

12:00

Erraldoiak.

13:00

Mozorro kukaña.

14:30

Arrantzaleen aldeko bazkaria.

18:00

Pasai txaranga.

22:00

Itzal erromeria.

00:00Traka.
Jaien amaiera.**Ondo pasa karmenetan!****Oiartzun**● **Gozotegia:** Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● **Lantegia:** Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com  **LEGAZPI 6**
EUSKALTEGIA**Gora Kaiko
Karmengo jaiak!**Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak (A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamena...

Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-21 99 07

legazpi6@legazpi6.eus